



Eskubideak
Ditugu

FAMILIENTZAKO
GIDALIBURUA

edex

*Eskubideak
Ditugu*

FAMILIENTZAKO
GIDALIBURUA

Amek eta aitek seme-alabei berauen eskubideak eta betebeharrak ulertzen laguntzen dietenean, bai eta gainerakoen eskubideak errespetatzen ere, helduaroan bizimodu arduratsua izateko oinarriak ezartzen dituzte. Haurren Eskubideen Hitzarmenaren hitzaurrean esaten den bezala, seme-alabak prestatzen dituzte «Nazio Batuen Gutunean aldarrikatutako idealen espirituarekin bizitzera, eta batez ere bakezko, duintasunezko, tolerantziako, askatasunezko, berdintasunezko eta elkartasunezko espirituan bizitzera».

1

P.4

HAURREK ESKUBIDEAK DITUZTE

Haurren Eskubideen
Hitzarmena **6**

Hitzarmena,
Solas egiteko 10 ipuinetan **10**

2

P.12

FAMILIAN SOLAS EGITEA

Bi belarri eta aho batekin **14**

Has gaitezen lanean **16**

3

P.18

ESKUBIDEA KONTUAN IZAN BEHAR DA

Berdintasuna / Lagunen eskua **20**

Osasuna / Hitzez hitz **22**

Ongizatea / Hainbat hobe norbaitekin **24**

Hezkuntza / Letratxoa **26**

Babesa / Korrika egin eta kontatzea **28**

Nortasuna /
Esaten dutena, esaten dutela **30**

Lehenengo haurrak /
Automobilek loditzen dute **32**

Parte-hartzea /
Komunaren hondamena **34**

Familia / Oso familia normala **36**

Jolasa / Harat-honat korrika **38**

A stylized illustration in shades of orange and yellow. On the left, a young boy with a backpack and a water bottle stands next to a taller boy wearing a long hat and a backpack, who is holding a rolled-up map. To the right, a dog is sitting on the ground. The background shows a forest with trees and a path.

1

HAURREK ESKUBIDEAK DITUZTE

HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMENA*

1989ko azaroaren 20an, mundu osoko gobernuko funtzionarioen, profesionalen, hurrei laguntzeko erakundeen eta talde erlijiosoen artean hamar urtez kontsultak eta negoziazioak egiten jardun ondoren, Nazio Batuen Batzar nagusiak Haurren Eskubideen Hitzarmenari buruzko testua onartu zuen, eta hurrengo urtean sartu zen indarrean.

Haurrek toki guztietan dituzten eskubideak daude Hitzarmenean, eta haurren garapeneko etapetako ongizaterako oinarritzko arauak ezartzen ditu. Gaur egun, munduan babesik handiena izan duen eskubideen nazioarteko ituna da. Izan ere, gaur egun herrialde bat bakarrik dago Hitzarmena berretsi gabe.

* Hitzarmenak dio «haurra» dela 18 urtez azpiko pertsona oro, dagozkien legeek adin nagusitasuna lehenago aitortzen ez badiete.

Haurren Eskubideen Hitzarmena, aurreko adierazpenak ez bezala, nahitaezkoa da Estatuentzat, eta horregatik da hain garrantzitsua. Hitzarmena berretsi duten gobernuek Hitzarmenaren arauekin uztartu behar dituzte legeak, politikak eta praktikak; arau horiek haurrentzako errealitate bihurtu behar dituzte; eta eskubide horiek galarazten dituen neurri oro galarazi behar dute.

Hitzarmenak haurtzaroari buruzko ikuspegi berria islatu du: haurrak ez dira gurasoen jabetza, ezta karitatezko ekintza baten defentsarik gabeko onuradunak ere, baizik eta familia eta erkidego bateko banakoak eta kideak dira, eta eskubideak eta erantzukizunak dituzte.

UNICEFen arabera, Hitzarmeneko giza eskubideak lau talde handitan sailkatu daitezke:

- **Bizirauteko eskubidea**, hau da, bizitzeko eskubidea eta funtsezko beharrak aseta izatekoa, besteak beste, bizi-maila egokia, aterpea, elikadura eta zerbitzu medikoetarako sarbidea.
- **Garapenerako eskubidea**, haurrek beraien potentzialik handiena lortzeko behar dutena, hau da, hezkuntza, jolasa, jarduera kulturalak, eta informazioa eskura izatea, eta pentsatzeko askatasuna eta konzientzia eta erlijio arlokoa erabiltzeko askatasuna.
- **Babeserako eskubidea**, haurrak babestu egin behar dira gehiegikeria, utzikeria eta esplotazio mota orotatik, eta arreta berezia behar dute haur errefuxiatuek, torturen biktimek, sistema judizial kriminalaren gehiegikeriak jasaten dituztenek, gatazka armatuetan parte hartzen dutenek, haurren lanak, drogen kontsumoak eta sexu-esplotazioak jasaten dituztenek.

- **Parte hartzeko eskubidea**, haurrek beraien komunitateen parte-hartze aktiboa izan dezaten. Eskubide hauetan sartzen dira iritzia adierazteko eskubidea eta helburu baketsuekin elkartu eta biltzekoa.



HITZARMENA, SOLAS EGITEKO 10 IPUINETAN

Hitzarmen hau errazago ulertzeko, 54 artikuluen edukia laburtu eta 10 enuntziatutan taldekatu dugu; horiek gidaliburu honekin batera doazen hamar aletan garatu dira:

- 1 **Berdintasuna.** Haur guztiek eskubide berberak dituzte, eta zaintza bereziak jaso behar dituzte, ezintasunen bat badute.
- 2 **Osasuna.** Gaixotasunei aurrea hartzeko eskubidea dute, bai eta behar dutenean arreta medikoa jasotzekoa ere.
- 3 **Ongizatea.** Gizarte Segurantza eta garatzeko eta duintasunez biziitzeko beharrezko baldintzak izateko eskubidea.
- 4 **Hezkuntza.** Beraien nortasuna eta gaitasunak garatzeko eta besteekin batera biziitzeko prestatuko dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea.
- 5 **Babesa.** Intimitaterako eskubidea, beraien gorputza eta sentimenduak ez kaltetzeko eskubidea, lanik ez egitekoa eta erreklutatua eta esplotatua ez izatekoa.

- 6 **Nortasuna.** Izen bat izateko, herrialde batekoa izateko, beraien hizkuntza hitz egiteko eta beraien ideien, sinesteen eta erlijioaren arabera bizitzeko eskubidea.
- 7 **Lehenengo haurrak.** Beraien eskubideak bermatzeko, Estatuak ahalegin guztiak egiteko eskubidea, bai eta haurrentzat onena kontuan izanda erabakiak hartzekoa eres.
- 8 **Parte-hartzea.** Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beraien iritzia adieraztekoa eta iritzi hoei beraiei eragiten dieten gaietan kontuan izatekoa.
- 9 **Familia.** Maite dituen eta bideratuko dituen familia bat izateko eskubidea, eta familia horrengandik ez banatzekoa, haien ongizateagatik ez bada.
- 10 **Jolasa.** Jolasteko denbora eta toki egokiak izateko eskubidea, bai eta jarduera artistikoak eta kulturalak egitekoa ere.



2

**FAMILIAN
SOLAS EGITEA**

BI BELARRI ETA AHO BATEKIN

Pertsonak hezurrak, giharrak, odola eta azala baino gehiago gara. Ipuinak ere bagara. Osasun-erakunde guztietan behar luke ipuin-gordailu batek. Etxe-etan, jatorduetan, gure ipuin platerkada izan behar genuke. Eskolan gehiago ikasiko genuke ipuinen bidez.

Mario Kaplúnek esan zuen: «kontatzea azaltzea baino hobe da beti». Ipuin batekin irudikatu egin dezakegu, harremanak izan ditzakegu, beste pertsonekin komentatu dezakegu ipuina. Horixe nahi dugu ipuin hauekin ere: kontu batzuk esan; haurrek hitz egiteko gogoia izan dezatela ipuinok entzutean, oroitzapenak partekatzeke gogoia, pasadizoak, indarrak edo beldurrak partekatzeke; haurren ahotsak entzun daitezela eta irribarrez beteta irten daitezela ahotsok haurren ahoetatik.

Zuk ere izango duzu hitz egiteko aukera, baina ez haurrek adina. Dena dela, zure zeregina izango da haurrek hitz egiteko gogoia izatea. Gogoan izan bi belarri eta aho bakarra dituztela: hitz egiten duten baino bi aldiz gehiago entzuteko.

Lagun egiteko, *Solas Egiteko Ipuinak*, bilduma bat dugu; berea bezalako familia batentzako ipuinak dira, non 6 urte baino gehiagoko neskato edo mutiko bat bizitzaren konplexutasunean sartzen hasi den.

10 ipuin dira guztira, eta haur talde bat da protagonista; familiako, eskolako eta auzoko eguneroko bizitzako egoeren berri emango digute. Zure alaba edo semea arazorik gabe identifikatuko da horiekin. Bost pertsonaia daude: Elenari gauzak erraz ahazten zaizkio, eta goxoa da; Nerea itsua da, baina bere adiskideek baino gehiago ikusten du; Mikelek erraz egiten du barre, lasaia da eta beti jaten ari da; Dani Nerearen neba da, kirolaria da eta beti baloiren bat du eskuan; eta Josu, Mikelen anaia akatsik gabea, dena kontrolpean izaten duelako da ezaguna.



HAS GAITEZEN LANEAN

Ipuin hauei esker, haurren eskubideez hitz egiteaz gain, norbere burua, gainerako pertsonak eta ingurua zaintzeari buruzko trebezia psiko-sozialez eta horien inguruko balioez hitz egin daiteke.

Ipuinetako irudiak ikusi eta testuak irakurtzeari esker, elkarrizketarako gogoia sortzea nahi da, eta litekeena da gogo hori izatea. Zure alabak/ semeak pentsatzen, sentitzen edo amesten duenari buruzko elkarrizketa. Hala gertatuko da entzuteko prest egonez gero eta elkarrizketa bultzatuko duten galderak eginez gero.



Material honi etekinik handiena ateratzeko iradokizunak:

- Aukeratu une egokia egunean zehar. Hartu denbora.
- Aukeratu toki egoki bat, etenik gabea. Itzali mugikorra.
- Administratu ipuinak. Kontua ez da jarraian irakurtzea, baizik eta banan-banan gozatzea. Eta behin eta berriro irakurtzea, zure alabak/ semeak hala eskatuz gero.
- Egin familian ipuinetako bakoitzarentzat hemen proposatzen dugun jardueraren bat.
- Ipuinak irakurtzearekin batera, ipuinari dagokion marrazki biziduna ere ikusi. Zorroan dagoen QR kodea erabiliz sartu daiteke.



3

**ESKUBIDEA
KONTUAN IZAN
BEHAR DA**

1 BERDINTASUNA | LAGUNEN ESKUA

Zer antzekotasun dituzte sutan dagoen etxe batek eta hutsik dagoen batek? Sutan dagoenean, sugarrak ikusten dira; hutsik dagoenean, su eta gar atea jo arren, ez da inor agertzen.

Hitz-joko honi esker, antzekotasunen grazia ikus dezakegu, baina batez ere desberdintasunen aldea. Bikiak ez dira berdinak izaten. Gizakiak direnez, desberdintasunak izaten dituzte. Antzekoak izaten dira, baina berdinak ez.


Gauza bera gertatzen da eskuko hatzekin: antzekoak dira, baina ez dira berdinak. Beharbada, horregatik daude hain elkartuta.

Hurrekin batera, artelan bat egingo dugu gure eskuekin. Ezkertiek eskuineko eskuarekin egingo dute lana, eta eskumatiek, ezkerrekoarekin. Lehenengo, beraien hatzik gustukoena zein den adierazi beharko dute, eta hatz-mamian beraien aurpegia margotu. Zure laguna izatea nahiko zenuke? Zer gustatzen zaizu eta zer ez zaizu gustatzen zuri buruz?

Hiru galdera horiekin, landu pertsona bakoitzak bere buruarekin duen harremana. Jarraian, gainerako lau hatz-mamietan beraien lagunik onenen aurpegiak margotuko dituzte, eta pertsona horietako bakoitzaren zer gauza gustatzen zaien eta zer ez zaien gustatzen esan beharko dute. Aztertu erraza edo nekeza izan zen lau pertsona horiek definitzea, eta zergatik. Erraza edo zaila da pertsona bakoitzarentzat adiskideak egitea edo galtzea?

Elkarrizketa ixteko, aztertu baieztapen hauen alde positiboa, negatiboa eta interesgarria:

- Gure adiskide diren pertsona guztiek gure gustu berdinak izan beharko lituzkete, eta izateko eta pentsatzeko modu berdina.
- Familia bateko kideak gauza guztietan berdinak izan beharko lirateke.



2 OSASUNA | HITZEZ HITZ

Men egiteko ikastaroan izena emateko, isatsa behar da, ile asko eta «guau, guau» esan behar da. Esertzen irakatsiko dizute, etzaten, lepokoarekin ibiltzen inor arrastaka eraman gabe, eta jabeak deitutakoan joaten. Munduko zenbait tokitako txakurrentzako hezkuntza-eskaintza da hau. I. mailan oinarrizko men egitea irakasten da, eta II. maila aurre-ratuagoa da.

Zer ikasi behar luke pertsona batek gizakien men egiteko ikastaro batean? Grazia eta xarma erabiliz, gonbidatu haurrak balizko ikastaro honetako edukiak antolatzen. Elkarriketan, aztertu egindako proposamen bakoitzaren zergatia. Hemen aterako zaio zukurik handiena jarduerari.

Guk dinamikarekin bat egingo dugu eduki batekin: jasotzen duten aginduak zer zentzu duen galdetzen ikasiko du, bere buruari galdetuko dio zentzu horri buruz.

Protanista nagusia Dani den ipuinean, botika hartu beharko luke, baina ez soilik sendagilea gustura utzi eta sari bat jasotzeko edo gurasoek errietan ez egiteko edo ez zigortzeko. Uste osoz eta autonomiaz aritu behar da, inork gure jarduera zaindu beharrik gabe, niretzat eta nire inguruko pertsonentzat zerbait ona lortzeko, nire osasunagatik.

Horregatik da garrantzitsua medikuaren azterketan hitz egitea: «Zergatik eman didazu botika hau?»; «Hobeto azalduko didazu... zer daukat, zergatik gertatu zait, zergatik hartu behar dut hau zortzi orduz behin?».

Horrela ulertuko dugu zergatik agindu zaigun eta kontzientziaren araberako jokatuko dugu, ez soilik men egiteagatik.



3 ONGIZATEA | HAINBAT HOBE NORBAITEKIN

Mexikon abuztuaren 15ean Auzokoaren Eguna ospatzen dute. Besteak beste, auzoko pertsonen arteko apatia txikitu nahi da, konfiantza maila hazi eta loturak sortu. Rosario, Argentinan, urriaren lehenengo asteazkenean *Jolasaren eta Elkarbizitzaren Eguna* ospatzen dute. Gasteizen ere antzeko zerbeit egiten da.

Ekimen hauen xedea da bestearen beldur izaten erakusten duen kultura aldatzea, atea ez irekitzearen eta inorekin ez gertzearen kultura aldatzea. Konfiantza gabezia honen ondorioetako bat da haurrak etxeetan giltzapean izatea, eta, ondorioz, babesteko tokiak izatetik hainbat arriskuren sorgailu izatea.



Elkarbizitzako kultura hau eraikitzeko iradokizunak:

- Antolatu datorren hilabetean zeuen auzoko eguna edo nahi duzuen izena jarri.
- Zure auzoan bizi arren, beraien izenik ez dakizun bi familien izena ikasi behar duzu; beharbada, zure etxearen aurrean edo ondoan bizi dira, zorionez.
- Diseinatu gonbidatzeko txartel polit bat, eta zuk zeuk eman.
- Prestatu landan igaroko duzuen egun batean partekatzeko janaria.

Ea loturak areagotu eta «auzo» hitzak zentzua izateko balio duen, gertukoa esan nahi baitu auzoa izateak. Une atsegina igaroko duzue, eta zure telefono agendan geratuko dira auzoko pertsonen izenak eta telefono zenbakiak, zuen hurrek larrialdiren bat izanez gero lagundu ahal izateko.


4 HEZKUNTZA | LETRATXOA

Jirafak, gehienetan, zutik egiten du lo, eta hainbat egunez esna egon daiteke inolako arazorik gabe. Aitzitik, koalak egunean 19 orduz egiten du lo. Lehenengoaren trebezia bigarrenaren ahulezia da. Pertsonekin ere gauza bera gertatzen da. Batzuei oso goiz jaikitzea gustatzen zaie, eta beste batzuk izutu egiten dira pentsatu hutsarekin.

Gauza bera gertatzen da bizitzako beste egoera batzuetan ere: pertsona batzuentzat zaila da besteekin komunikatzea, eta beste batzuentzat oso erraza. Batzuei matematika izugarri gustatzen zaie, eta beste batzuek ezin dute ikusi.

Horixe da munduko gauzarik ikusgarrienetakoa. Izaki bizidunak, eta jakina, gizakiak, desberdinak gara; bakoitzak bere gaitasunak eta mugak ditu.

Ipuina irakurri ondoren, osatu taula hau. Ekintza gehiago jarri daitezke edo daudenak aldatu. Ariketa honen interesik handiena da hitz egitea,



elkarrizketa bat hastea, eta hizketan ari garela bakoitzak adieraztea zailtasun edo erraztasun horiek noiz eragin dituzten eragozpenak eta nola egin zaien aurre.

Ekintza	Niretzako erraza da	Niretzako zaila da
Dantza		
Igeri egitea		
Idaztea		
Jendaurrean hitz egitea		
Isilik egotea		
Adiskideak egitea		
Sentitzen dudana esatea		
Norbaiti kontra egitea		



5 BABESA | KORRIKA EGIN ETA KONTATZEA

Haurren sexu-gehiegikeriak uste baino gehiagotan gertatzen dira, ez soilik pertsona heldu ezagun edo ezezagun batek haur bat bortxatzen duenean edo genitalak ukitzen dizkionean. Sexu gehiegikeria modu gehiago ere bada, eta askotan gu izaten gara protagonista, jakin gabe. Adibidez, hitz desegokiak erabiltzen ditugunean gorputzeko zatiak izendatzeko edo haurren aurrean haien sexu-arrakastaren edo porrotaren pronostikoa egiten dugunean.

Baita haien intimitatearen jabe sentitzen garenean ere. Bere alabaren edo semearen intimitatea errespetatzen duen ama eta aita batek atea jotzen du logelan edo komunean sartzeko. Ez dituzte haurrak jendarean biluzten, eta ez diete sinestarazten genitalak itsusiak, lotsatze-koak edo zikinak direnik; ez dute beste pertsonen genitalei buruzko txisterik egiten, ez eta isekarik ere.

Askotan, hurrek uste izaten dute beraien gorputzak ez duela garrantzi handirik, ez direla beraien jabeak eta beste pertsona batzuek nahi dute-

na egin dezaketela. Haurrek ulertu egin behar dute inork ez duela haurrak ukitzeko eskubiderik.

Aztertu haurrekin Elenari (ipuineko neskatoari) gertatu zitzaionaz zer uste duten, eta antzeko zerbait gertatu zaion beste haurrik ezagutzen duten. Egoera horietarako bi ekintzarik nagusienak gogorarazi: ihes egiteko korrika joan eta laguntza eskatzeko kontatu.

Zure seme-alabekin batera, egin zerrenda bat gizonen eta emakumeen genitalei buruz hitz egiteko hitzekin, eta gauzei bere izenez deitzeko jolasa egin.



6

NORTASUNA

ESATEN DUTENA, ESATEN DUTELA

Zure hurrekin batera aurkitu galdera hauen erantzunak:

- Mundu guztiari haragia gustatzen ote zaio?
- Mundu guztiari futbola gustatzen ote zaio?
- Mundu guztiari gustatzen ote zaio gainerako guztiei gustatzen zaiena?
- Zein da mundu guztia?

Gehienetan, gure gustu berdinak izan eta guk bezala pentsatzen dutenei «normalak» esaten diegu, eta beste modu batera jokatzeko dutenei «arraroak» edo «okerrekoak». Oro har, lehenengok gure onarpena izaten dute, eta besteak ez ditugu atsegin izaten eta arbuiatu egiten ditugu.

Naturan aurkakoa gertatzen da. Espezie bereko izakiak edo izurriteak nagusitzen direnean, naturak ez du hori jasaten, eta gatazka sortzen du. Nahiago du aniztasuna eta desberdintasuna egotea, bizitza hazi egiten baita, eta harmonia dago.

Naturaren zati garela gogorarazteko, probatxo bat egin dezakezue. Jolasa denez, oso serio hartuko duzuela espero dugu, eta eguneroko bizitzako zati izango dela hemendik aurrera: aukeratu arraroa edo desatsegina duzuen zerbait (min fisikoa edo psikologikoa eragiten dizuen zerbait). Zergatik ez jan inoiz ausartu ez zareten zerbait, arraroa, desatsegina, ezohikoa den zerbait? Zergatik ez saiatu guk ez dakigun hizkuntza bateko hitzun batekin hitz egiten?

Aukera polita izan daiteke «mundu arraro» horietan gure gizateria komun honen zerbait aurkitzeko. Terentziok esan zuen bezala: «Gizakia naiz, eta gizakien ezeri ezin diot ezikusiarena egin».



7

LEHENENGO HAURRAK

AUTOMOBILEK LODITZ

- Ama, aita... joan naiteke kalera? Galdera horri erantzutea ez da beti erraza izaten. Baimena eman nahi izaten diegun arren, batzuetan ezetz esaten diegu. Bata dela edo bestea dela, toki hau adingabeentzat ez dela atsegina eta segurua uste izaten dugu..

Beharbada, horregatik erabaki zuen Federicok, Erromako Haurren Kontseiluko 10 urteko mutikoak, hiriko alkateari eskatzea baimena: «Hiri honek guri etxetik irteteko baimena ematea nahi dugu».

Agintariak izan daitezke haurrentzako hiri lagunkoia lortzeko laguntzailerik garrantzitsuenak. Pediatrak kezkatuta daude gero eta obesitate handiagoa dagoelako haurren artean, eta hauek ere laguntzaile garrantzitsuak izan daitezke ekimen honetan. Pediatren esanetan, gaixotasun hori gainditzeko ez da nahikoa elikadurako ohiturak aldatzea, ezta eskolako kirola ere; beharrezkoa da haurrak gehiago mugitzea, askatasun handiagoarekin ibiltzea jolasean eta eskolara oinez edo bizikletan joatea.

EN DUTE

Haurren beharrei erantzungo dien hiriaren aldeko laguntzaileen zerrendan daude amak eta aitak ere. Pentsa ezazu zer egin dezakezun zure alaba edo semea hirian bere lagun taldearekin ibili dadin, batetik bestera ibili eta gozatu dezaten. Ia gauza guztiek balio dute, haurrak babes-teko denbora osoan beraien alboan egon nahi izateak izan ezik.

Hitz egin beraiekin gai honi buruz, eta proposatu helburu hori lortzeko laguntzaileak: hurrek tokia izango duten hiri bat.



8 PARTE-HARTZEA | KOMUNAREN HONDAMENA

1991n, Fanon (Italia) *Haurren hiri* izeneko esperientzia bat sortu zen. Hiri horretan eta beste batzuetan Proiektu hori garatzea erabaki dute, eta urtero Kontseilu bat izaten da hurrek hiriaren planifikazioan parte har dezaten:

- «Behin pilotan nenbilen, eta udaltzain batek kendu egin zidan».
- «Auto gehiegi dago, eta jolaserako toki gutxi dugu».
- «Nik entrenatzailerik gabeko futbol-zelai bat nahi dut, mesedez».

Beluchistanen (Pakistan), hezkuntzako funtzionarioek erabaki zuten Scouten iradokizun bati jaramon egitea, neskatoek ere heziketa izatearen beharrari buruz. Horri esker, 2.500 neskato eskolatu ziren emakumeen analfabetismoa % 98koa zen toki batean.

UNICEFen haurren egoerari buruzko 2003ko txostenaren arabera, Europako haurren % 42k onartzen du beren bititzei buruzko erabakiren bat hartzen denean etxean, ez zaiela beraiei galdetzen.

Haurren protestak eta proposamenak entzuten dituen gizarteak, eskolak eta familiak ikuspegia irabazten du, eta giro demokratikoak eraikitzen ditu. Herritartasuna ez da soilik helduen kontua. Pertsona guztien kontua da, adin eta baldintza guztikoetakoena.

Aztertu gertuko haurrengan eragina duten eguneroko bizitzako erabakiak. Antolatu bilera bat zure usteetara azkar eta modu xumean ekarri ahal izateko. Inork ez du ezer galduko. Alitzitik, denek irabaziko dute, batez ere beste pertsonenganako konfiantza.



9

FAMILIA | OSO FAMILIA NORMALA

Lankidetzta, taldeko jarduera eta banaketa izan ziren lehenengo gizar-teen ezaugarriak. Gaur egun ere Amerikako erkidego indigena batzuetan kontzeptu horiek erabiltzen dira. Kolonbiako Nasa indigenen ustez, esaterako, gizona emakumeen berezko zereginak garatzen ikasten duena da eta emakumea, gizonezkoen zereginak egiten ikasten duena. Era berean, beste gizarte batzuetan sexu bateko eta besteko pertsonen artean dominazio eta desberdintasun harremanak garatu dira.

Egia esan, beste batekin bizitzea erabakitzen denean, akordioak egon behar dira elkarbizitza atsegina izan dadin. Hori dela eta, zure haurrekin batera gauzak asmatzeko hartu behar duzu denbora. Hasteko, etxean egiten diren zereginen zerrenda egingo da. Jarraian, zer beste zeregin liratekeen beharrezkoak irudikatuko da. Ondoren, jada egiten direnen arduradunak zein diren eta egingo direnak zeinek egingo dituen. Beharrezkoa izanez gero, familiako kide berriak asmatu.

Oraingo honetan emankorragoa izan daiteke marraztea. Egindako marrazkiekin, aztertu hurrekin emakumeek zeregin horietan igarotzen duten denbora gizonen berdina, gutxiago ala gehiago den. Aztertu zer lan mota egiten dituzten gizonak eta emakumeak. Amaitzeko, matematikaren laguntzarekin, aurkitu oreka: inork ez dezala izan gehiegi edo gutxiegi. Pertsona bakoitzaren aukeren arabera.



10 JOLASA | HARAT-HONAT KORRIKA

Mugitu, berandu zoaz... presaka bizi den gizartearen esamoldeak dira, galtzeko denborarik ez duen gizartearenak. Horrela bizi dira gure haurrak. Toki batetik bestera korrika eramaten ditugu.

Pertsonak, autoek bezala, azeleragailua dute, baina balazta ere bai. Gelditu gaitezten, eta haurren laguntzarekin eta Aristotelesekin, neurtu dezagun gure jakituria. Filosofo honek esaten zuen pertsona jakintsuak inoiz ez zuela presarik izaten. Beraz, lasaitu eta ikusi dezagun zorientasun apur bat irabazteko denborarik dugun:

- Zenbat denbora duzu oinetan masajeak eman eta hartzeko?
- Zenbat denbora hartzen duzu gauari, ilargiari eta izarrei begiratzeko?



- Zenbat denbora hartzen duzu paisaiari begiratzeko?
- Zenbat denbora igarotzen duzu igarotzen ari den jendeari begira egoteko?
- Zenbat denbora hartzen duzu jatordu bakoitza egiteko?
- Zenbat denbora hartzen duzu komunera joateko?
- Zenbat denbora hartzen duzu zure maskotarekin ibiltzera joateko?
- Zenbat denbora hartzen duzu familiakoak ikustera joateko?
- Zenbat denbora eskaintzen diezu lagunei?
- Zer gehiago egin nahiko zenuke zorientsuagoa izateko?

Zure kontuak ateratakoan, aukeratu ideia hauetako bat zure hurrekin batera berehala praktikan jartzeko.





Testua: EDEX (Gladys Herrera eta Roberto Flores)

Marraskia eta animazioa: KAIA

Kolorea: María Terrazas eta Tote Azkona

Diseinu grafikoa: Alfredo Requejo

© Edex 2019 / edex@edex.es / www.edex.es

ISBN: 978-84-17774-24-0

Lege-gordailua: BI-1491-19

Debekatuta dago kopiatzea, osorik edo zati bat, edozein prozedura erabilita, aldez aurretik argitaratzaileen idatzizko baimena lortu gabe.

Eskubideak Ditugu

FAMILIENTZAKO GIDALIBURUA

Eskubideak Ditugu-k 6 urtetik gorako neska-mutilak dituzten familiei hurbiltzen die Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

Gidaliburu hau lagungarria izango dute *Solas Egiteko* 10 ipuin hauetako bakoitzari zuku handiagoa ateratzeko. Bakoitzarekin batera, partekatzeko jarduera soil bat dator.

- **Berdintasuna** / Lagunen eskua
- **Osasuna** / Hitzez hitz
- **Ongizatea** / Hainbat hobe norbaitekiko
- **Hezkuntza** / Letratxoa
- **Babesa** / Korrika egin eta kontatzea
- **Nortasuna** / *Esaten dutena, esaten dutela*
- **Lehenengo haurrak** / *Automobilek loditzen dute*
- **Parte-hartzea** / *Komunaren hondamena*
- **Familia** / *Oso familia normala*
- **Jolasa** / *Harat-honar korrika*